



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urtarrilaren 15a

2. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-24/LEY-00013. Nafarroako 2025-2028 Estatistika Plana onetsi eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duena (2. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-24/LEY-00013. Nafarroako 2025-2028 Estatistika Plana onetsi eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2024ko abenduaren 27an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako 2025-2028 Estatistika Plana onetsi eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Xedatzea Nafarroako 2025-2028 Estatistika Plana onetsi eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proiektua prozedura arruntari jarraituz iza-pidetu dadila.

2. Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeari esleitzea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hamar egun baliouduneko epea irekiko da, **2025eko urtarrilaren 30eko eguerdiko 12:00etan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteak eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote foru lege proiektuari.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako 2025-2028 Estatistika Plana onetsi eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak Nafarroan estatistika-lana arautzen duen lege-esparrua ezarri zuen, Foru Erkidegoko errealitate sozial, ekonomiko eta demografikoari buruz behar adina informazio fidagarri eta alderagarria edukitzeko helburuarekin.

Foru Lege honek diotenaren arabera, Estatistika Plana estatistika-lana sustatu, antolatu eta planifikatzeko baliabide egokia da. Lan hori Nafarroako Estatistika Sistemak egingo du.

Foru Lege honek Nafarroako Estatistika Plana ezartzen du 2025-2028 eperako, Nafarroako Parlamentuak onetsiko duen zazpigarrena. Horrekin, Nafarroako Estatistika-sistema sendotu eta indartzeko prozesuari segida eman nahi zaio. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen aurreikuspenen arabera, planaren indarraldian garatu beharreko helburu orokorrak eta berariazkoak ezartzen dira, baita horiek lortzeko estatistika-lanak ere. Lan horiek Nafarroako Gobernuak onesten dituen urteko estatistika-programetan jasotako jarduketetan gauzatzen dira.

Nafarroako 2025-2028 Estatistika Planak aurreko planak gidatu dituzten printzipio berdinak mantentzen ditu eta administrazio-iturriak erabilitzeko eta informazioa sexu, adina, lurralde, hiritasun eta beste aldagai batzuen arabera banatzeko beharra berresten du bere funtsezko xedearen artean. Politika publikoak planifikatzeko eta ebaluatzeko estatistika publikoak duen garrantzia ere txertatu du. Halaber, kudeaketa-prozesuen kalitatea hobetzeko eta, bereziki, estatistika-eragiketarako

dokumentatzeko prozesuen kalitatea hobetzeko xedeari ere segida ematen zaio.

Plan berri honek helburu horiek sendotu eta beste berri batzuk ere aurreikusten ditu. Azken hauen xedea da berentzat interesekoak diren eremuen inguruko ezagutzan sakontze, eta, horrenbestez, kudeaketa-erremintak hobetzea ahalbide-tzen duten instrumentuak ematea Administrazio Publikoari eta gizarteari. Irizpide izango dira ahalik eta kosturik txikiena sortzea eta administrazio-erregistroak nahiz existitzen diren iturriak ahalik eta gehien aprobetxatzea, horrela saihestu egingo baita zerbitzuak bikoiztea, gutxitu egingo baitira herritar, enpresa eta erakundeetarako eragindako eragozpenak eta bermatu egingo baita, halaber, estatistika-isilpekotasuna eta estatistika-informazioaren irisgarritasuna, lastertasuna eta eskuragarritasuna.

Halaber, gizarte-eragileen partaidetzarekin ezarritako lan-taldeak oinarri hartuta garatu zen parte hartzeko prozesuak beren informazio-eskariak aurkezteko bide bat eta Planaren edukia beren beharretara egokitzeko aukera eskaintzen du.

Halaber, Nafarroako Estatistika Planaren helburuak adierazle-sistema baten bitartez ebaluatzeke sistema bat ere aurreikusi da.

Estatistika ofizial guztia eskuragarri egongo da Nafarroako Estatistika Erakundearen webgunean, Nastatek kudeatzen dituen estatistika-eragiketen baldintza berdinetan, eta dagokion adierazleak txertatuko ditu Nafarroako Estatistika Adierazle Publikoaren Sistemaren (NEAS). Nafarroako Gobernuako Departamentuetatik datorren estatistika-informazioa ere webgune horretan sartuko da, hargatik aipatu informazioa beren hedatze-sistemetan ere jasotzeko Departamentuek daukaten aukera eragotzi gabe. Era berean, estatistika-informazio guztia Gobernu Irekia atalean ere jasoko da, bere berrerabilera errazteko asmoz.

Horrez gain, Foru Lege honek estatistikari dagokionez Nafarroako Gobernuaren eta entitate publikoen eta pribatuen zein estatu-mailako eta nazioarteko erakundeen arteko lankidetzaren instituzionalaren harremanak ezartzen ditu, bai eta Nafarroako Estatistika Erakundeak plan hau betetzeko izango dituen eginkizunak ere.

Azken xedapenen lehenean Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen da, politika publikoak ebaluatzeke oinarri izango diren estatistika-adierazlearen sistema publikoaren sortzeari dagokionez gehienbat. Era berean, datu-iturri berrien erabilerean eta Nastatek garatuko dituen eginkizun berrien ondoriozko egokitzapenak jaso dira, bai eta errolda-datuen lagapena ere.

Azkenik, eta Foru Lege honen eranskin gisa, estatistika-eragiketarako eta administrazio-informazio-iturrien inbentarioa jasotzen dira, horien gaineko ardura duten Nafarroako Gobernuko Departamentuak identifikatuz. Horiez gain, Planaren indarraldian zehar gehitu zitezkeen estatistika-eragiketa berrien inguruko dokumentazioa eta 2025-2028 Estatistika Planaren helburuak ebaluatzeke adierazlearen zerrenda ere jasotzen dira.

1. artikulua. Onartzea

Nafarroako 2025-2028 Estatistika Plana onartzen da.

2. artikulua. Edukia

Nafarroako Estatistika Sistemaren jarduera arautzen duen tresna Nafarroako 2025-2028 Estatistika Plana da. Administrazioak egiten dituen estatistika-informazioen zerrenda jasotzen du eta Gobernuko unitate ezberdinen edo gizartearen (zentsurik zabalenean) beharrak asetzeko xedearekin 2025-2028 laurtekoan egin beharko direnak zehazten ditu. Informazio horiek estatistika-eragiketa, administrazio-informazioaren iturrien inbentario eta estatistika esperimenterako gisa identifikatzen dira. Zuzenbide-esparruaz aparte, aipatua garatzeko helburuak eta instrumentuak, urteko programak eta planaren betetze-maila kontrolatzea ahalbidetzen duen ebaluazio-sistema zehazten ditu.

3. artikulua. Denbora-eremua.

Onartzen den Nafarroako Estatistika Plana 2025eko urtarrilaren 1etik 2028ko abenduaren 31 arte egongo da indarrean. Dena dela, plan hori iraungitzean plan berri bat onetsi ez bada, hurrengoak indarra hartu arte luzatuko da, salbu eta ezarritako dauden epe edo aldiengatik salbuetsi beharrekoak diren eragiketei dagokienez.

4. artikulua. Urteko Estatistika-programak

1. Nafarroako 2025-2028 Estatistika Plana garatzeko, urteko programak osatuko dira, urtero egin beharreko eragiketarako zehaztuko dituztenak.

2. Urteko Estatistika-programetan sartu ahalko dira planean jasota ez dauden estatistika-eragiketarako eta estatistika esperimenterako, baldin eta eragiketa horiek sartzen diren programan azaltzen bada zer arrazoiengatik sartzen diren; aipatu eragiketarako ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

a) Nafarroako Estatistika Planaren helburuetarako egokiak izatea.

b) Oinarritzeko proiektu tekniko bat edukitzea, III. eranskinean jasotzen den ereduaren oinarritua, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 27.2 b) artikuluan ezarritakoak.

ko zehaztapenaren arabera, egin beharreko jarduera estatistikoen fidagarritasuna bermatzeko. Nastatek eredu hori egokitu ahalko du, baldin eta horretarako zioak justifikatzen badituen eta Nafarroako Estatistika Kontseiluaren onespena baduen.

c) Lege honetan eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean aurreikusitako kalitate- eta zuzenbide-printzipioak betetzea.

d) Nastati dagokio aipatu eskakizunen betetzea baloratzea, dagokion unean indarrean dagoen eredu normalizatuaren eta estatistikaren kategorizazioaren (eragiketa edo estatistika esperimental) arabera aurkeztu den dokumentazioa aintzat hartuz.

3. Betiere, eragiketa horiek urteko estatistika-programetan sartzeko eta gauzatzeko, aurrekontu eta antolaketa aldetik eskueran dauden bitartekoen arabera jokatu da.

4. Estatistika-eragiketak gehitzeko aukera dute Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean zehazturiko Nafarroako Estatistika Sistemako unitateek.

5. Nafarroako Estatistika Erakundeak eskatzen zaizkion laginak prestatuko ditu, Foru Komunitateko Administrazioaren esku egonik komunikazioa ezartzeko beharrezkoak diren datu guztiekin, xedetzat huts-hutsik hartuta Estatistika Planean edo dagokion urteetako programetan onartutako estatistika-eragiketarako datuen bilketa.

6. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Estatistika Kontseiluaren txostena jaso ondoren, Urteko Estatistika-programa onartuko du programari dagokion urtearen aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen.

7. Urteko Estatistika-programa bakoitzaren indarraldia urte naturala izango da. Halere, hurrengo plana onetsi arte luzatuko da, beren izaera dela eta jarraitutasuna behar duten eragiketarako.

8. Urteko Estatistika-programa bakoitzak, onartzen den unean, bere helburuak adierazi beharko ditu, haietako bakoitzean lortu beharreko jomugak eta noraino betetzen diren ebaluatzeko adierazleak.

9. Nafarroako Estatistika Erakundeak Urteko Estatistika-programa bakoitzaren jarraipen-txostena egingo du, Nafarroako Gobernuak, hala badagokio, onar dezan; aldeztu aurretik, Nafarroako Estatistika Kontseiluari jakinaraziko zaio. Txostenetan azalduko da helburuak lortzearen inguruan egoera zein den.

5. artikulua. Erantzun beharra

1. Nahitaez bete behar dira Nafarroako 2025-2028 Estatistika Planean jasotako eragiketak.

2. Nafarroako Estatistika Planak esleitzeagatik eragiketa estatistikoak egiteko eskumena duten organoek administrazio-datuen iturrietara jo dezakete, horietan barne hartuta datu pertsonal identifikatuak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, erakunde autonomoek eta haien menpeko gainerako enpresa eta entitateek dauzkatenak, baldin eta datu horiek beharrezkoak badira aginduta dituzten estatistika-eragiketak egiteko eta bat etortzen badira Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datuen Babesari buruzko Erregelamendu orokorrean xedatutakoarekin.

3. Nafarroako Estatistika Planeko eragiketarako ematen diren datuak sekretu estatistikoaren araubidepean egongo dira, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 15.etik 22.era bitarteko artikuluetan xedatzen denaren arabera.

6. artikulua. Estatistika Planaren helburu orokorra

Nafarroako 2025-2028 Estatistika Planaren helburu orokorra da Nafarroako esparru desberdinei buruzko ezagutza handitzea, beharrezkoak diren estatistikak eginaz eragile guztiekin koordinatuta eta baliabide publikoak modu efizientean erabiliz, estatistika-iturri nagusia bilakatuz politika publikoak ebaluatzeko.

7. artikulua. Estatistika Planaren berariazko helburuak

Helburu orokorra bermatzeko, ondoko berariazko helburuak ezarri dira:

1. Nafarroako Estatistika Sistemaren elementuen arteko koordinazioa areagotzea; baita beste Estatistika Sistema batzuekiko ere.

2. Administrazio Publikoaren eta gizartearen eskaerei erantzuneko informazio estatistikoa eskueran izatea.

3. Gizarte-erakundeen parte-hartzea sustatzea, haien beharrak ezagutzeko.

4. Administrazio-informazioko iturrien inbentarioa etengabe eguneratzen dela bermatzea, informazio estatistikoa hobetze aldera.

5. Administrazio-erregistroak eta beste informazio-iturri erabilgarri batzuk helburu estatistikoekin erabil eta berraprobetxa daitezten sustatzea.

6. Estatistika ofiziala politika publikoak aztertu eta ebaluatzeko eta erabakiak hartzeko erabil dadin sustatzea, Nafarroako Gobernuaren plan eta estrategien informazio- eta ebaluazio-beharrak aseko dituen Adierazle-sistema bat eraikiz.

7. Estatistika ofizialaren kalitatea sustatzea zorroztasuna, fidagarritasuna eta gardentasuna bermatuz eta, horretarako, prozesuak dokumentatzea eta metadatuak argitaratzea.

8. Informazioaren erabilera samurtuko duen zabalkunde estatistikoko sistema bat sustatzea, datuak eskuratzea eta berrebiltzea hala nola elkarrengarritasuna errazago egingo dituen.

9. Informazioaren egokitasuna, puntualtasuna eta independentzia bermatzea, argitalpen-egutegi bat iragarri.

10. Esparru ezberdinen arabera bereizitako informazioa ematea, arreta berezia emanaz generikuspegiari, lurraldeari, hiritartasunari eta jaiotze-herrialdeari, desgaitasunari, adinari, ikasketen mailari eta diru-sarrerren mailari, diagnostikoak egiteko eta erabakiak hartzeko.

11. Datu-iturri berriak erabiltzea eta erabilera konbinatua integraturiko informazio-sistemen baitan ahalbidetuko duten teknologia-, prozedura- eta heziketa-neurriak sustatzea.

12. Arau komunak oinarri hartuta, estatistiken koherentzia eta alderagarritasuna sustatzea definizioei, unitateei eta sailkapenei dagokienez, alderaketak ahalbidetuz beste estatistika-organismo publiko batzuek egin dituzten horiekin.

8. artikulua. 2025-2028 Estatistika Plana ebaluatzea

2025-2028 Estatistika Plana bukatu ondoren, Nastatek ebaluazio-proposamen bat egingo du, Estatistika Kontseiluak onar dezan, urteko programa bakoitzaren ebaluazio-txostenetan oinarrituz eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean ezarritakoarekin bat. Ebaluazioak planaren berriazko helburuei erantzungo die.

Helburuen gauzatze-mailaren jarraipenerako adierazleak IV. eranskinean daude, haietako bakoitzak Plan hau bukatzen denean erdietsi beharko dituen jomugekin batera. Nafarroako Estatistika Kontseiluak gaitasuna dauka adierazleak planaren indarraldian zehar aldatzeko, alternatiba egokiagoak daudela iritzi gero.

Nafarroako Gobernuari onar dezan igorri aurretik, dokumentu horiek Nafarroako Estatistika Kontseiluari jakinaraziko zaizkio.

Halaber, Nafarroako Estatistika Kontseiluak izendaturiko ordezkari bat nahitaez agertu beharko da Nafarroako Parlamentuan, ebaluazioaren edukien berri emateko.

9. artikulua. Estatistika-eragiketak

Estatistika-eragiketek kalifikazio hori lortuko dute, Nafarroako Estatistika Erakundeak, Lege honetako 4. artikuluan xedatutakoari jarraiki, proposatu den dokumentazioa aztertu eta onetsi ondoren. Ondorio horietarako, estatistika-eragiketatzat joko dira gizarte osoaren edo gizarte-sektorearen baten estatistika-beharrizan identifikatu bati erantzuteko bete diren jarduerak. Datuak bildu eta prozesatzeko modua diseinatzera behartzen du eta kontzeptualki mugarritutako gai bati buruzko emaitza agregatu estatistikoak lortzean amaitzen da.

Estatistikak landu daitezke banakako datuen bilketan oinarrituta edo agregatuak aprobetxatuz, kasuak kasu. Sektore pribatutik datozen datuak informazio-iturri izan daitezke, estatistika-eragiketa baterako, beren erabilgarritasuna, alborapenik eza eta kalitatea era nahikoan bermatuta badituzte.

Estatistika-ekoizpen eraginkor baterako beharrezkoak diren estatistika-azpiegiturako lanak ere estatistika-eragiketak izan daitezke, beren sor-kuntza eta mantentzea estatistika-beharrei erantzuten dieten neurrian.

Kasu guztietan, horiek lantzearen helburua estatistikoa da.

Nafarroako Estatistika Erakundeak prestatuko du behar den dokumentazio-eredua. Eredu hori Nastaten webgunean egongo da eskuragarri.

10. artikulua. Administrazio-informazioko Iturrien Inbentarioa

Administrazio-informazioaren inbentarioa estatistika-eragiketei informazioa eman diezaieketen administrazio-erregistroen katalogo bat da, bere jatorrian edo metodologia-berrikuste batean aintzat hartu beharreko datu-iturri gisara.

Inbentarioak ondokoak bilduko ditu, gutxienez, administrazio-erregistro bakoitzerako: sortu duen administrazio-egintzaren inguruko informazioa, identifikazio normatiboa, kontzeptuala, edukia eta biztanleria-estaldura. Informazio hori une bakoitzean indarrean dagoen dokumentazio-ereduari jarraiki bete beharko da. Eredu hori Nastaten webgunean egongo da eskuragarri.

11. artikulua. Estatistika esperimentalak

Urteko Programek datu-iturri berrien eta/edo metodologia berritzaileetan oinarritutako estatistika esperimentalak hartu ahalko dituzte. Hauek ez dira Estatistika-eragiketatzat hartuko dagokion ebaluazio-prozesuek hori egitea ahalbidetzen duten arte.

Estatistika esperimentalek 11/1997 Foru Legeak, ekainaren 27koak, Nafarroako Estatistikari buruzkoak, Estatistika Jardueraren Arauketa izeneko I. Tituluari jasotzen dituen printzipioak eta arauak bete beharko dituzte. Salbuespen bakarra da Emaizten zabalkundea eta argitalpena izeneko 5. atala ez dela aplikatuko.

Eragiketa horiek dagokion moduan identifikatuko dira Urteko Programetan. Ebaluazio-txostenek egindako lanak aipatu beharko dituzte.

12. artikulua. Estatistika adierazleen sistema publikoak

Nafarroako Estatistika Adierazle Publikoen Sistema (NEAS) eta Lurraldeko Estatistika Adierazleen Sistema sortuko dira beharra, aukera eta bideragarritasuna oinarri hartuz, eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeko 57. eta 58. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Adierazleak dokumentatuko dira Nafarroako Estatistika Erakundeak egin eta Nastaten webgunean argitaratutako ereduaren arabera.

Adierazle bat dagokion sisteman sartzea Nastati dagokio. Horretarako zioa txosten bidez justifikatu beharko du erantzuna ezezkoa denean ondoko arrazoietak baten ondorioz: justifikatu ez den beharrizan bat, bideragarritasun eza adierazlea balioestean, aurkeztutako dokumentazioaren kalitate kaskarra edo behar diren baldintzak betetzen ez dituzten iturriak.

Adierazleen dokumentazioaren eta metodologiaren gaineko erantzukizuna adierazlea sartzea eskatu duten unitateei dagokie eta Nastat subsidiarioki arituko da, horretarako bitarteko egokirik ez dagoen kasuetan.

Lurraldeko Estatistika Adierazleen Sistemaren kasuan, Nafarroako Lurralde Informazio Sistemak (NLIS) planteatu dituen eskakizunak hartuko dira aintzat.

13. artikulua. Hedatzea

Nafarroako Estatistika Erakundeak bere webgunea lehenetsiko du estatistika-informazio guztia eta horrekin lotura duen dokumentazioa hedatzeko.

Datu horiek hirugarrenek erabiliz gero, estatistika-iturriaren aipamena egin beharko dute nahitaez.

14. artikulua. Erakundeen arteko lankidetzak

1. Nafarroako Estatistika Erakundeak, interesgarria iruditzen bazaio, mota guztietako entitate eta erakundeengana jo ahalko du, Nafarroako 2025-2028 Estatistika Planean ezarritako helburuak kudeatzeko xedearekin.

2. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Estatistika Erakundearen bitartez, lankidetzak-hitzarmenak sinatu ahalko ditu tokiko, autonomia erkidegoetako, estatuko eta nazioarteko entitateekin, Foru Komunitatean lortutako estatistikak hobetzeko asmoz, estatistikek ordezkagarritasuna hobetu eta Nafarroari buruzko ustiapen osoagoak ahalbide ditzaten. Akordioak, betiere, Nafarroako Estatistika Erakundearen bitartez izenpetuko dira.

Xedapen gehigarri lehena. 2025eko Urteko Estatistika-programa onartzea.

Nafarroako Gobernuak, beranduenik, Foru Lege hau indarrean sartu eta hiru hileko epean onartuko du 2025eko Urteko Estatistika-programa.

Xedapen gehigarri bigarrena. Udal-erroldeko datuetarako sarbidea.

Online Errolda martxan jartzen denean, Nafarroako Estatistika Erakundeak udal-erroldeak izango ditu bere esku, denbora errealean eguneratuta. Aipatuak Nafarroako Foru Komunitateko udaletatik jasoko ditu eta Nafarroako Biztanleria Erregistroan erabiliko ditu.

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzea.

1. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 3. artikulua aldatzen da. Bere edukia honako hau izango da:

“3. artikulua. Estatistika-jardueraren printzipioak.

Foru Lege honek arautzen duen estatistika jarduerak, oro har, kontutan hartuko ditu emaitzen interes publikoa, gardentasuna, homogeneousutasuna, proportzionaltasuna, zabalkundea eta argitalpena, informazioa gorde eta zaintzea, Administrazio Publikoen arteko lankidetzak, sekretu estatistikoa eta informazioa emateko betebeharrak eta estatistika-jarduketarako publikoaren ardatza izango dira “Europako Estatistiken Jardunbide Egokien Kodean oinarritutako kalitate-irizpideak”.

Estatistika-jarduerak datuetan oinarritutako kudeaketa eta ebidentzietan oinarritutako erabakiak hartzen lagunduko du, eta politika publikoak eta horien kudeaketa planifikatzeko eta ebaluatze balioko du; horretarako, politika publikoen ebaluazioan eskatzen diren estatistika-beharrak hartuko ditu kontuan”.

2. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 9. artikulua 1. apartatua aldatzen da berri bat eranstean zaio, ondoko testuarekin:

“1. Foru lege honen ondorioetarako, estatistika ofizialak izango dira Nafarroako Estatistika Planean, Nafarroako Urteko Estatistika-programetan sartutakoak eta Foru Lege honetako 28. artikuluko dionari jarraiki Nafarroako Gobernuak onetsi dituen estatistika-eragiketak.”

3. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 22. artikulua aldatzen da. Bere edukia honako hau izango da:

“3. Izena, identifikatzaileak, tokia, jarduera, tamaina-identifikatzaileak, enpresaren izaera esportatzaile edo inportatzaile gisa, helbide elektronikoko korporatiboak, telefono korporatiboak eta bestelako ezaugarri orokorrak bezalako datuak, hedapen orokorreko erregistroetan edo direktorioetan sartu ohi direnak, besterik ez dituzten direktorioak”.

4. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 31. artikulua aldatzen da. Bere edukia honako hau izango da:

“1. Nafarroako Estatistika Erakundearen eginkizunak ondokoak dira:

a) Nafarroarako interesgarria den estatistika-jarduera publikoa sustatu, zuzendu eta koordinatzea.

b) Nafarroarako interesgarria den estatistika-jarduera publikoaren printzipioak, xedeak eta gainerako alderdiak hedatzea.

c) Foru Komunitateko Administrazioiko eta Toki Administrazioetako Estatistika Sistemaren gainarako unitateen lankidetzaz Nafarroako Estatistika Planaren Aurreproiektua egitea.

d) Datuen sailkapenerako eta emaitzen aurkezpenarako kontzeptu, definizio, sailkapen, izen eta kodeei buruzko arauak proposatzea, horien erabilera bultzatzea Nafarroako estatistika-jardueran eta koordinazio metodologikoa sustatzea tokiko erakundeen, komunitate autonomoen, Estatuko Administrazio Orokorraren, Europako Batasunaren eta beste erakundeen estatistika-jarduerarekin.

e) Urteko Estatistika-programetan bere esku utzi diren estatistika-eragiketak egitea.

f) Demografia, ekonomia eta gizartearen estatistikei buruzko sistema integratuak burutzea.

g) Estatistika-unitateen direktorioak burutzea eta lurralde, populazio, etxebizitza eta jarduera ekonomikoari buruzko oinarriko parametroak eta markoak sortzeko eta eguneratzeko behar diren errolda-eragiketak egitea.

h) Estatistika-ikerketak eta alor horretan jarduten duten langileen heziketa eta lanbide-hobekuntza bultzatzea.

i) Foru Komunitatearen Administrazioa ordezkatzeko tokiko unitate eta erakundeekin, autonomia erakundeekin zein estatuko edo nazioartekoekin izan ditzakeen harremanetan eta estatistika jardueran haiekiko koordinazioa eta elkarlana sustatzea. Ordezkaritza-lan horretan departamentu eta ko-espezialitate-unitateen laguntza izango du eta halaxe behar denean haien esku utziko du bere ordezkaritza.

j) Estatistika Sistemaren unitateekin batera, sekretu estatistikoa aplikatu eta errespetatu dadin zaintzea.

k) Nafarroari loturiko estatistiken hedatzea sustatzea.

l) Estatistika-jarduera beren tresnen edo xedeen artean eduki eta Foru Komunitateko Administrazioak inplikaturik dituzten hitzarmen- edo akordio-proiektu guztiei zein zerbitzu kontratazioei buruzko dagokien txostenak prestatzea.

m) Nafarroako Foru Administrazioaren unitateek gauzatu nahi dituzten estatistika-eragiketari buruzko txostenak prestatzea, baldin eta haien ardurako administrazio-harremanetatik at dauden pertsona fisikoek zein juridikoek informazioa eskatzea bada-karte.

n) Nafarroako Estatistika Planean sartuta dauden estatistika-eragiketak egiteko beharrezkoak diren erregistroetan eragiten duten galdeketa, administrazio-prozedura eta informatika-aplikazioei buruzko txostenak prestatzea.

o) Foru Lege honek araututako estatistika-jarduera burutzen duten unitateek estatistikak egite-rakoan erabili dituzten galdeketen zein metodoen eraginkortasuna neurtzeko ikerketak aurrera eramatea.

p) Beren izaera dela eta, estatistika-iturri gisa erabil daitezkeen informazioen produkzioan eragin dezaketen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren administrazio-prozeduren diseinu eta aldaketarako txostenak prestatzea, berrikuntza horien probetxamendua optimiza dadin eta egokiro bultzatzea ezan estatistika-beharren betetzea. Indarraldiari buruzko oharra.

q) Eskatu zaizkion biztanleria-proiektzioak eta loturiko beste aurreikuspen-eredu guztiak burutzea.

r) Estatistika-datuaren kultura administrazioan, hezkuntza-eremuan eta gizartearen bultzatzea, estatistika ofizialaren erabilera sustatzeko.

s) Legeak esleitzen dizkion beste estatistika-eginkizun guztiak”.

5. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 35. artikulua aldatzen da. Bere edukia honako hau izango da:

“35. artikulua. Estatistika-jardueraren urteko informazioa

Urteko ebaluazio-txostenak gauzatzeko xedearrekin, Departamentu bakoitzak bere ardurapeko estatistika-jarduerari buruzko dagokion informazioa eskaini beharko dio Nastati, indarreko dokumentazio-ereduari jarraiki”.

6. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 49. artikulua aldatzen da. Bere edukia honako hau izango da:

“49. artikulua. Nafarroako Biztanleria Erregistroa sortzea.

Nafarroako Biztanleria Erregistroa sortzen da. Erregistroan ondoko datuak jasoko dira: izen-deiturak, helbidea, sexua, jaioteguna eta NAN zenbakia edo, atzerritarren kasuan, agiri horren ordezkorekin zenbakia. Datu horiek Nafarroako Foru Komunitateko udal guztietako biztanleen erroldetan agertzen direnak izango dira. Foru Komunitatearen Administrazioaren esku dauden harremanetarako datu osagarriak ere sartu ahalko dira, beti ere Foru Lege honetako 52. artikuluan zehazturiko helburuetarako komunikaziorako beharrezkoak badira”.

7. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 50. artikulua aldatzen da. Bere edukia honako hau izango da:

“50. artikulua. Nafarroako Biztanleria Erregistroko datuak lortzea.

Nafarroako Biztanleriaren Erregistroko datu pertsonalak Estatistika Institutu Nazionalak eman go ditu, 2016/679 (EB) Erregelamenduak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenak, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duenak eta 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak diotena betez.

Estatistika Institutu Nazionalak eman dituen horien artean osotasunean edo partzialki ez dauden Nafarroako Biztanleria erregistroko beste datu guztiak, Lege Honetako 52. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako soil-soilik, Foru Komunitatearen Administrazioaren jabetzako administrazio-erregistroetatik lortu ahalko dira eta Nafarroako Estatistika Erakundearen Tratamendu-jardueren

Erregistroan jasota eta identifikatuta egon beharko dute”.

8. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeari titulu berri bat eransten zaio, “VI. Titulua. Nafarroako Estatistika-adierazleen Sistema publikoak” izenekoa. Bere edukia honako hau izango da:

“VI. Titulua. Nafarroako Estatistika-adierazleen Sistema publikoak

56. artikulua. Plangintzarako eta ebaluaziorako adierazleen sistemak

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren plan, programa, proiektu eta plangintza estrategikoko edozein dokumentu motari loturiko adierazleak, ahal dela, estatistika-eragiketa ofizialen datuak erabiltzeko gaitasunarekin diseinatuko dira, beren homogeneotasuna, alderagarritasuna eta noizean behinkako hedatzea bermatzeko.

57. artikulua. Nafarroako Estatistika Adierazle Publikoen Sistema

Nafarroako Estatistika Adierazle Publikoen Sistema (NEAS) erreferentzia izango da Foru Komunitatearen Administrazioeko unitate ezberdinek beren plangintza- eta diagnostiko-jardueretan edo politika publikoak ebaluatzeko behar dituzten estrategia-, inpaktu- eta testuinguru-adierazleetarako eta beste egoera ugariatarako.

Adierazle berriak txertatu ahal izateko, beren kalkulua ahalbidetzen duten iturriek Nafarroako Estatistika Planean edo estatistika-plangintzako beste instrumentu ofizial batzuetan jasota egon beharko dute.

Adierazle guztiek dagokion metodologia eduki beharko dute beren garapenerako. Honek definizioa, formula teorikoa, neurtzeko unitatea, erabilitako iturriak eta kalkuluaren aldizkakotasuna identifikatu beharko ditu, gutxienez.

Informazio hau Nafarroako Estatistika Erakundearen webgunean argitaratuko da eta bere berreskribatutako bultzatuko da.

58. artikulua. Nafarroako Lurraldeko Estatistika Adierazleen Sistema

Nafarroako Lurraldeko Estatistika Adierazleen Sistemak Nafarroa osoa baino txikiagoa den lurralde-dimentsio bat aintzat hartzea ahalbidetzen duten Nafarroako Estatistika Adierazle Publikoen Sistemako (NEAS) adierazleak bilduko ditu. Hala ere, beren izaera dela eta Nafarroa osorako ezinezkoak diren baina lurraldeen arabera eskaini daitezkeen adierazleak ere bilduko ditu.

Lurralde-banantzeak arau ofizialetan zehaztutako zonakatzetako bat izan beharko du.

Lurralde-adierazleak sisteman sartzeko irizpi-deak izango dira beharra, egokitasuna eta bideragarritasuna.

Lurraldeko adierazleak koherenteak izango dira Nafarroako erreferentziazkoa den adierazlearekiko, horrelakorik dagoenean.

Adierazle guztiek dagokion metodologia eduki beharko dute beren garapenerako. Honek definizioa, formula teorikoa, neurtzeko unitatea, erabilitako iturriak eta kalkuluaren aldizkakotasuna identifikatu beharko ditu, gutxienez.

Informazio hau Nafarroako Estatistika Erakundearen webgunean argitaratuko da eta bere berberabilerara bultzatuko da”.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean sartzea.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

I. eranskina. Estatistika-eragiketen zerrenda

- Departamentua
- Estatistika-eragiketaren kodea eta izena
- Zuzendaritza Nagusia edo asimilatutako unitatea
- Deskribapena
- Helburuak

- Ase nahi dituen beharrak
- Lurraldeen arabeko banaketa hedatzean
- Argitaratzeko maiztasuna
- Arduradunaz beste, faseren batean parte hartzen duten unitateak, fase hori zein den identifikatuz

- Azterketa-unitatea
- Iturria
- Datuak ematen dituen erakundea
- Datuak jasotzen dituen erakundea
- Lortutako informazioa
- Xedea

II. eranskina. Administrazio-iturrien inbentarioa

- Departamentua
- Erregistroaren izena
- Zuzendaritza Nagusia edo asimilatutako unitatea
- Erreferentzia normatiboak
- Edukia

III. eranskina. Estatistika-eragiketa berriak gehitzeko dokumentazioa

[Beharrak eta proiektu teknikoa zehaztea]

IV. eranskina Nafarroako 2025-2028 Estatistika

Planaren helburuen betetze-maila neurtzeko adierazleak

Berriazko helburua	2025-2028 adierazlea	Hasierako egoera	2028rako jomuga
1. Nafarroako Estatistika Sistemaren elementuen arteko koordinazioa eta beste Estatistika Sistemekiko hori areagotzea.			
2. Administrazio Publikoaren eta gizarte orokorraren eskaerei erantzungo dien estatistika-informazioa edukitzea.	Gogobetetasun-inkesta erabiltzaileei	e/a	e/a
3. Gizarte-erakundeen parte-hartzea sustatzea, haien beharrak ezagutzeko.	Ekitaldiak egitea gizarte-erakundeekin		
4. Administrazio-informazioko iturrien inbentarioa etengabe eguneratzen dela bermatzea, informazio estatistikoa hobetze aldera.	Sarturiko administrazio-informazioko iturriak	e/a	e/a
5. Administrazio-erregistroak eta beste informazio-iturri erabilgarri batzuk helburu estatistikoeekin erabil eta berraprobetxa daitezten sustatzea.	Administrazio-jatorria: Administrazio-iturriak osotasunean edo partzialki erabiltzen dituzten EEn proportzioa		+2
6. Estatistika ofiziala politika publikoak aztertu eta ebaluatzeko eta erabakiak hartzeko erabil dadin sustatzea, Nafarroako Gobernuaren plan eta estrategien informazio- eta ebaluazio-beharrak aseko dituen adierazle-sistema bat eraikiz.	NEAS adierazleak erabiltzen dituzten plan estrategikoak: Plan adierazleak/NEAS barruko plan adierazleak guztira	e/a	% 80
7. Informazioaren erabilera samurtuko duen estatistika-zabalkundeko sistema bat sustatzea, datuak eskuratzea eta berrebiltzea hala nola elkarreragingarritasuna errazago egingo dituen.	Argitaratutako EE metadatuak EE guztiekiko Argitaratutako adierazleak definitzeko fitxak NEAS adierazle guztiekiko		% 100 % 100
8. Informazioaren erabilera samurtuko duen estatistika-zabalkundeko sistema bat sustatzea, datuak eskuratzea eta berrebiltzea hala nola elkarreragingarritasuna errazago egingo dituen.			
9. Informazioaren egokitasuna, puntualtasuna eta independentzia bermatzea, argitalpen-egutegi bat iragarritz.	Egutegia zehaztua duten EEn kopurua/EE guztien kopurua		% 100
10. Esparru ezberdinen arabera bereizitako informazioa ematea, arreta berezia emanaz genero-ikuspegiari, lurraldeari, hiritartasunari eta jaiotze-herrialdeari, desgaitasunari, adinari, ikasketen mailari eta diru-sarreraren mailari, diagnostikoak egiteko eta erabakiak hartzeko.	Sexuaren araberako banaketa Lurraldearen araberako banaketa Hiritartasunaren araberako banaketa Jaiotze-herrialdearen araberako banaketa Desgaitasunaren araberako banaketa Adinaren araberako banaketa Diru-sarreraren mailaren araberako banaketa Ikasketen mailaren araberako banaketa		% 100
11. Datu-iturri berriak erabiltzea eta erabilera konbinatua integraturiko informazio-sistemen baitan ahalbidetuko duten teknologia-, prozedura- eta heziketa-neurriak sustatzea.	Erabili diren datu-iturri berriak (zk.)	e/a	e/a
12. Arau komunak oinarri hartuta, estatistiken koherentzia eta alderagarritasuna sustatzea definizioei, unitateei eta sailkapenei dagokienez, alderaketak ahalbidetuz beste estatistika-organismo publiko batzuek egin dituzten horiek.			

I. eranskina. ESTADISTIKA-ERAGIKETEN ZERRENDA**Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua**

Estatistika-eragiketa	2200050 Liburuen Argitalpen-produkzioari buruzko Estatistika	
Zuzendaritza Nagusia edo asimilatutako unitatea	Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioa	Nafarroako Estatistika Erakundea
Deskribapena	Informazioa izatea inprimatu, editatu eta jendearen eskura jarri diren ez-aldizkako argitalpenen kopuruari eta ezaugarriei buruz; argitalpenaren gaia eta hizkuntza, batez ere.	
Helburuak	Nafarroan inprimatutako ez-aldizkako tituluak argitaratzeko produkzioa ezagutzea, argitalpenaren hizkuntza eta gaia bezalako oinarriko ezaugarrien arabera.	
Ase nahi dituen beharrak	Kulturaren arloan, liburuen produkzioa eta kontsumoa intereseko osagarria da erabiltzaile ezberdinentzat. Argitalpen-produkzioaren intentsitateak eta bere ezaugarriek sektore honek gure gizartean duen bilakaera ezagutzeko aukera ematen dute; izan ere, produktu digitalek eszenatoki berri bat ekarri baitute inprimaturiko argitalpen-produkzioarentzat.	
Lurraldeen arabeko banaketa hedatzean	Nafarroa	
Argitaratzeko maiztasuna	Urterokoa	
Arduradunaz beste, faseren batean parte hartzen duten unitateak, fase hori zein den identifikatuz		
Premien zehaztapena	Kultura Ministerioa	
Diseinu eta garapena	Kultura Ministerioa	
Datu-bilketa	Kultura Ministerioa	
Datu-prozesaketa	Kultura Ministerioa	
Hedapena		

Azterketa-unitatea	Iturria	Datuak ematen dituen erakundea	Datuak jasotzen dituen erakundea	Lortutako informazioa	Xedea
Nafarroan argitaratutako liburuak eta liburuxkak	Liburuen Argitalpen-ekoizpenaren mikrodatuak (Kultura Ministerioa)	Kultura Ministerioa	Nafarroako Estatistika Erakundea, Nastat	Tamaina, hizkuntza, euskarri eta edizioaren arabera sailkatutako aleak	Iturri nagusia

Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua

Estatistika-eragiketa	2200066 Izendegia	
Zuzendaritza Nagusia edo asimilatutako unitatea	Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioa	Nafarroako Estatistika Erakundea
Deskribapena	Nafarroako biztanleria-entitateen zerrenda.	
Helburuak	Biztanleria-entitateen zerrenda gizartearen esku jartzea, denboran zehar izan dituen aldaketekin.	
Ase nahi dituen beharrak	Biztanleria-entitateen eta beren izen ofizialen zerrenda eguneratua behar duten Gobernu-unitate ezberdinen eskaerei erantzutea.	
Lurraldeen araberako banaketa hedatzean	Entitate bereziak	
Argitaratzeko maiztasuna	Etenik gabekoa	
Arduradunaz beste, faseren batean parte hartzen duten unitateak, fase hori zein den identifikatuz		
Premien zehaztapena		
Diseinu eta garapena		
Datu-bilketa		
Datu-prozesaketa		
Hedapena		

Azterketa-unitatea	Iturria	Datuak ematen dituen erakundea	Datuak jasotzen dituen erakundea	Lortutako informazioa	Xedea
Aldaketak Nafarroako biztanleria-entitateetan	Nafarroako Aldizkari Ofiziala	Nafarroako Estatistika Erakundea, Nastat	Nafarroako Estatistika Erakundea, Nastat	Biztanleria-erakundeari buruzko aldaketak (nortasun juridikoa, udalerriarekiko lotura, izena)	Iturri nagusia

Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua

Estatistika-eragiketa	2200071 Familien aurrekontuei buruzko Inkesta (FAI)	
Zuzendaritza Nagusia edo asimilatutako unitatea	Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioa	Nafarroako Estatistika Erakundea
Deskribapena	Estatistika honek informazioa eskaintzen du etxeetako kontsumo-gastuen izaerari eta jomugari buruz eta etxeetako bizi-baldintzen zenbait ezaugarri buruz.	
Helburuak	<p>Estimazioak lortzea etheen urteko kontsumoaren gastuaren agregatuari dagokionez eta hura sailkatzea etxearen aldagai ezberdinen arabera, kontsumo-gastuaren egitura ezagutzeko honela.</p> <p>Nafarroako Ekonomia Kontuetan kontsumo pribatua zehaztea ahalbidetzen duen instrumentu gisa kalkulatzeko du gastua.</p> <p>Bigarren mailako helburua da ikertzaileen eta, oro har, gizarte-adierazleen sistemaren eskura jartzea gizartearen ardurako zenbait arlori buruzko estatistika-datuak (ekipamendua, etxebizitza, elikadura, osasuna, irakaskuntza, turismoa). Horri heltzeko, urteko modulu telematikoak sartuko dira.</p> <p>Gainera, zenbait aldagai inkestan bertan lor daitezke, hori helburua izan gabe; esaterako, etheen edo pertsonen banaketa sailkapen-aldagai batzuen arabera (sexua, adina, ikasketen maila, etab.), edo etheen batezbesteko tamaina.</p>	
Ase nahi dituen beharrak	Familien aurrekontuei buruzko Inkesta zaharrenetakoa da. Herritarron portaera ezagutzea ahalbidetzen du, gastu-egituraren bitartez. Honela, kontsumoari loturiko lehentasunak eta saila batzuen eta besteen garrantzi-maila aurreikusi daitezke.	
Lurraldeen arabeko banaketa hedatzean	Nafarroa	
Argitaratzeko maiztasuna	Urterokoa	
Arduradunaz beste, faseren batean parte hartzen duten unitateak, fase hori zein den identifikatuz		
Premien zehaztapena	Estatistika Institutu Nazionala	
Diseinu eta garapena	Estatistika Institutu Nazionala	
Datu-bilketa	Estatistika Institutu Nazionala	
Datu-prozesaketa	Estatistika Institutu Nazionala	
Hedapena		

Azterketa-unitatea	Iturria	Datuak ematen dituen erakundea	Datuak jasotzen dituen erakundea	Lortutako informazioa	Xedea
Etxeak eta etxe horietako kideak	Familien aurrekontuei buruzko	Estatistika Institutu Nazionala	Nafarroako Estatistika Erakundea, Nastat	Egotzitako alokairua, autokontsumoa, etxearen gastua azken kontsumoan (diru-izaerakoa zein bestelakoa), Batezbesteko gastua etxeko, Batezbesteko gastua pertsonako, Etxe-mota	Iturri nagusia

Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua

Estatistika-eragiketa	2200073 Kanpoko merkataritzari buruzko estatistika	
Zuzendaritza Nagusia edo asimilatutako unitatea	Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioa	Nafarroako Estatistika Erakundea
Deskribapena	Salgaien kanpoko merkataritzari buruzko estatistikak deskribatzen du nolakoak diren merkataritza-arloko harremanak herrialdeen artean, eta dimentsio anitzeko informazioa ematen du, balioaren eta kopuruaren aldetik, salerosketen salgaiei buruz, oinarri hartuta Estatuko Zerga Agentziako Aduanen eta Zerga Berezien Departamentuak emandako datuak. Lorturiko datuak Espainiako, Europar Batasuneko eta Europar Batasunetik kanpoko beste herrialde batzuetako esportazioen eta inportazioen informazioarekin aldera daitezke.	
Helburuak	Nafarroan egindako ondasunen merkataritza-trukeen inguruko informazio xehea sortzea, Estatuko Zerga Agentziako Aduanen eta Zerga Berezien Departamentuak emandako datuak oinarri hartuta. Informazioa lortzea ondasunen esportazioei eta inportazioei buruz eta eragiketa-mota horien ezaugarri batzuei buruz: zer sektoretan, eremu geografikotan/herrialdetan egiten diren kanpoko merkataritzako eragiketa horiek.	
Ase nahi dituen beharrak	Informazio hori oso erabilgarria da merkataritza-negoziazioei ekiteko, merkataritza- eta moneta-politikak diseinatzeko eta ebaluatzeko Administrazio Publikoen aldetik. Halaber, beharrezkoak dira Nafarroako Ekonomia Kontuak egiteko. Horrez gain, interesgarria izan daiteke ere enpresentzat eta enpresa-elkarteentzat, beren merkataritza-estrategiak zehazteko eta diseinatzeko, merkatu-azterketak egiteko edo enpresak bere lehiakideen aurrean duen esportazio-posizioa ezagutzeko aukera ematen duelako, besteren artean.	
Lurraldeen araberako banaketa hedatzean	Nafarroa	
Argitaratzeko maiztasuna	Hilerokoa	
Arduradunaz beste, faseren batean parte hartzen duten unitateak, fase hori zein den identifikatuz		
Premien zehaztapena	Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa (EIN...)	
Diseinu eta garapena	Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa (EIN...)	
Datu-bilketa	Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa (EIN...)	
Datu-prozesaketa		
Hedapena		

Azterketa-unitatea	Iturria	Datuak ematen dituen erakundea	Datuak jasotzen dituen erakundea	Lortutako informazioa	Xedea
Beste herrialde batzuekin merkataritza-trukeak egiten dituzten enpresak	Enpresa	Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa (EIN...)	Nafarroako Estatistika Erakundea, Nastat	Inportazioak eta esportazioak (balio, pisu eta unitatetan)	Iturri nagusia

Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua

Estatistika-eragiketa	2200075 Nafarroako Hiru hilez behingo Kontabilitatea	
Zuzendaritza Nagusia edo asimilatutako unitatea	Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioa	Nafarroako Estatistika Erakundea
Deskribapena	Koiunturako laburpen-estatistika bat da Nafarroako Hiru hilez behingo Kontabilitatea. Bere xede nagusia da Nafarroako ekonomiak epe laburrean izango duen bilakaera aztertzea. Estimazioak ematen ditu ekonomiaren agregatu nagusiei buruz: Barne Produktu Gordina (BPG) eta haren osagaiak, ikuspegi hauetatik: eskaintza, eskaria eta errentak eta enplegua eta errenta nazionala. Estimazio horiek eguneko prezioetan eta bolumenaren aldetik egiten dira (errentaren ikuspegiko estimazioen kasuan, eguneko prezioetan baino ez), baita joera zikloaren aldetik ere.	
Helburuak	Nafarroako ekonomiaren hiru hileko bilakaera eta agregatu makroekonomiko nagusiak eskaintzaren, eskariaren, errentaren eta enpleguaren ikuspegitik kalkulatzeko.	
Ase nahi dituen beharrak	Nafarroako Hiru hilez behingo Kontabilitatea Nafarroako ekonomiaren agregatu makroekonomiko nagusien bilakaera hiru hilez behin aztertzeko eta kuantifikatzeko beharraren ondorioz sortu zen. Urteko Ekonomia Kontuen emaitzak aurreratzen ditu.	
Lurraldeen araberako banaketa hedatzean	Nafarroa	
Argitaratzeko maiztasuna	Hiru hilez behingoa	
Arduradunaz beste, faseren batean parte hartzen duten unitateak, fase hori zein den identifikatuz		
Premien zehaztapena		
Diseinu eta garapena		
Datu-bilketa		
Datu-prozesaketa		
Hedapena		

Azterketa-unitatea	Iturria	Datuak ematen dituen erakundea	Datuak jasotzen dituen erakundea	Lortutako informazioa	Xedea
Nafarroako ekonomia-eragileak	Iturri ezberdinetako adierazleak Beste estatistika batzuetako informazioa berrerabiltzen du	Nafarroako Estatistika Erakundea, Nastat	Nafarroako Estatistika Erakundea, Nastat	Ekonomia-sektore ezberdinetako adierazleak	Iturri nagusia

Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua

Estatistika-eragiketa	2200080 Hipotekei buruzko Estatistika	
Zuzendaritza Nagusia edo asimilatutako unitatea	Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioa	Nafarroako Estatistika Erakundea
Deskribapena	Hipoteken estatistikak informazioa ematen du hipoteken eraketari buruz, hau da, erreferentziako hilabetean ondasun higiezin gainean eraten diren hipoteka berrien kopuruari buruz eta hipoteka horiei dagozkien hipoteka-kreditu berrien zenbatekoari buruz. Informazioa ematen du, halaber, hipoteken erregistroko aldaketei edo ezerezteei buruz. Informazio hori guztia hipotekatutako finkaren izaeraren arabera banakatzen da.	
Helburuak	Helburu nagusia da zenbat hipoteka berri eraten diren erreferentziako hilabetean ondasun higiezin gainean (landa-lurrekoak, hiri-lurrekoak edo bestelakoak) eta jabetza erregistroetan inskribatzen diren azaltzea. Zenbatekoa hipoteka horien hipoteka-kreditu berrien horri dagokio.	
Ase nahi dituen beharrak	Erakutsitako informazioak hipoteka-merkatuaren deskribapen bat ematen du, beharrezkoa dena ekonomia- eta gizarte-eragile ezberdinek erabakiak har ditzaten.	
Lurraldeen arabeko banaketa hedatzean	Nafarroa	
Argitaratzeko maiztasuna	Hilerokoa	
Arduradunaz beste, faseren batean parte hartzen duten unitateak, fase hori zein den identifikatuz		
Premien zehaztapena	Estatistika Institutu Nazionala	
Diseinu eta garapena	Estatistika Institutu Nazionala	
Datu-bilketa	Estatistika Institutu Nazionala	
Datu-prozesaketa	Estatistika Institutu Nazionala	
Hedapena		

Azterketa-unitatea	Iturria	Datuak ematen dituen erakundea	Datuak jasotzen dituen erakundea	Lortutako informazioa	Xedea
Hipotekak	Hipotekei buruzko Estatistika	Estatistika Institutu Nazionala	Nafarroako Estatistika Erakundea, Nastat	Hipotekatutako finkak, erregistro-baliogabetzeak, erregistro-aldaketak	Iturri nagusia

Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua

Estatistika-eragiketa	2200081 Kontsumoko Prezioen Indizea	
Zuzendaritza Nagusia edo asimilatutako unitatea	Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioa	Nafarroako Estatistika Erakundea
